

NATURZALEON II. ARGAZKI LEHIAKETA

OINARRIAK:

1. **Antolatzailea:**

Haritzalde Naturzaleen Elkartea.

2. **Partehartzaileak:**


Naturzalea den edonork parte hartu dezake, bere adina edozein dela ere. 18 urtetik beherakoek guraso edo tutorearen baimena beharko dute.

3. **Gaia:**

URUMEA IBAIA. Aurten Haritzaldek "Urumea Bizi" erakusketa ikusgai jarriko du maiatzatik aurrera. Irudien bitartez ibaia ura baino gehiago dela erakutsi nahi dugu. Arroa aldarrikatu nahi dugu eta gordetzen duen biodibertsitatea... Lagunduko al diguzu Urumearen sekretuak ezagutzen?

4. **Argazkiak aurkezteko prozedura:**

- Argazkiak 2017ko apirilaren 3tik apirilaren 30era arte aurkeztu ahal izango dira.
- Partehartzaile bakoitzak gehienez 3 argazki aurkeztu ahal izango ditu.
- Argazkiak JPG formatuan bidali beharko dira izen-emate inprimakiarekin batera.
- Argazkiek gutxienez 300 kb eta gehienez 4 mb izango dituzte.



- ✉ Parte hartzaileak izen-emate orria bete beharko du Haritzalderen web orrian egokituko den formularioa betez: izen-abizenak eta telefono zenbakiarekin, Haritzaldekoko kidea den ala ez adieraziz.

5. **Epaimahaia:**


Epaimahaiak irabazleak hautatuko ditu. Ospe handiko bi argazkilarik eta Haritzaldekoko Zuzendaritzako kide batek osatuko dute:

- Lolo Vasco (<http://www.bluephotoagency.com/es/perfillolovasco.html>)
- Ramón Arambarri (<http://www.ramonarambarri.com>)
- Xabier Rubio (Haritzaldekoko Lehendakaria).

- ✉ Ikuslearen saria: Aurkezten diren argazki guztiak www.haritzalde.org web gunean ikusgai egongo dira eta edozeinek bozkatu ahal izango ditu web gunearen bitartez maiatzaren 5etik 15era bitartean, pertsona bakoitzak behin bakarrik bozkatu ahal izango du. Bozkatzen dutenen artean Haritzalderen kamiseta bat zozketatuko dugu.

6. **Sariak:**

1. Saria: Asteburu bat (2 gau+gosariak) 2 lagunentzat [SASTIZAR Landetxean](#), Areso (Nafarroa).
 2. Saria: 50€ Tamayo paperdendetan + Haritzaldekoko kamiseta
 3. Saria: 25€ Tamayo paperdendetan + Haritzaldekoko kamiseta
- Ikuslearen saria: 25€ko kultura-bonoa + Haritzaldekoko kamiseta



HARITZALDE
naturzaleen elkartea

- Parte hartzen duten Haritzaldeko kideen artean 50 €ko Kultura-bonoa zozketatuko da.
- Parte hartzaile guztien artean zozketatuko da 25€ko bonoa Tamayo Paperdendan

7. **Eskubideak:**

Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak Haritzalde Naturzaleen Elkartearen esku geldituko dira, egoki deritzon jarduera eta formatuan argitaratu ahal izateko, beti ere irabazi asmorik gabe eta egilearen izen- abizenak aipatuz.

8. **Onarpena:**

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar ezinbestean eta agertu daitezkeen edozein ustekaberen aurrean antolakuntzak erabakiko du, erabaki horren aurrean ezin izango delarik apelatu.

Laguntzaileak



www.tamayo.es

[SASTIZAR LANDETXEA](#)

<http://casaruralsastizar.blogspot.com.es/>

Informazio guztia: www.haritzalde.org